

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 722/2021 Erabakia, azaroaren 23koa. Onestea energia-jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko 2021-2022 ekitaldiko dirulaguntza lerroaren emakida

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 23ko 157/2021 Erabakiaren bidez, onetsi zen energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroaren 2021-2022rako deialdia.

Ebazpen horrek bete egiten du oinarri horietan dagoena, zehazki honako hauetan jasotakoa: "7. Dirulaguntzak emateko prozedura. Eskaerak baloratzeko eta dirulaguntzak emateko irizpideak. Dirulaguntzen zenbatekoa" eta "8. Eskaerak izapidetzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa. Eskaeren epeak eta epe barruan ez ebaztearen ondorioak".

Laguntza lerroak honako jardun mota hauek laguntzen ditu diruz:

1. mota. Eraikin eta ekipamenduen inbentario energetikoak egitea, parke mugikor eta argiteria publikoko instalazioak, kontsumoen kontrola, ikuskaritza energetikoa, eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak, ekintza energetikoen planak eta hiri mugikortasuneko planak.

2. mota. Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, kontsumitzen den energia benetako beharrianetara egokitzeko.

3. mota. Eguzki bidezko argizatze ekipamendua.

4. mota. Energia berriztagarrien aprobetxamenduko instalazioak eta ekipamendua, aprobetxamendu termikoko eta elektrizitatea sortzeko sistemak barne: eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa.

5. mota. Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa aprobetxatzeko, baita erabilera publikoko karga elektrikoko azpiegiturak ere.

6. mota. Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bizikletentzakoak barne. Kargatzeko puntuak erabilera publikora bideratuta egongo dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuen zerbitzura.

7. mota. Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bizikleta elektrikoak barne, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, 58 erakundek 84 dirulaguntza eskaera aurkeztu dituzte beste horrenbeste jardun garatzeko.

Ez da onartu Olabarriko Administrazio Batzarraren eskaera, ez duelako betetzen Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eskatzeko prozedura.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, zenbait eskabidetan oinarrietan eskatutako dokumentazioa falta zela antzeman zen. Horrenbestez, erakunde eskatzaileei eskaera egin zitzaizen aipatutako dokumentazioa aurkez zezaten, eta ohartarazi zitzaizen hala jokatu ezean eskaera bertan behera uzten zutela ulertuko zela, aurretik ebazpena emanaz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ezarri bezala.

Adierazi behar da ezen, aurrekontu partida egokia aldatuta, 2021erako diru kopurua 150.000,00 euroz handitu dela.

Eskaerei aurre egiteko gehieneko zenbatekoa 314.000,00 euro da, urteka honela banatuta:

AURREKONTU PARTIDA	URTEA	ESLEIPENA
60.2.05.64.00.762.90.01 Energia eraginkortasunerako dirulaguntzak 2021-2022	2021	44.000,00 euro
Aurrekontu aldaketa	2021	150.000,00 euro
60.2.05.64.00.762.90.01 Energia eraginkortasunerako dirulaguntzak 2021-2022	2022	120.000,00 euro
Guztira		314.000,00 euro

Eskaerak jaso eta balioetsi ondoren eta ezetsiak alde batera utzita, hona hemen jardun mota bakoitzerako guztira emandako dirulaguntzak:

JARDUN MOTA	BAIETSITAKO JARDUN KOP.	EMANDAKO DIRULAGUNTZA (GEHIENEZ)	EHUNEKOA	2021 URTEALDIA	2022 URTEALDIA
1	19	99.016,11 euro	ehuneko 31,53	33.155,91 euro	65.860,20 euro
3	3	18.189,08 euro	ehuneko 5,79	17.448,20 euro	740,88 euro
4	12	183.453,72 euro	ehuneko 58,42	143.395,89 euro	40.057,83 euro
5	1	4.341,09 euro	ehuneko 1,38		4.341,09 euro
7	1	9.000,00 euro	ehuneko 2,87		9.000,00 euro
Guztira	36	314.000,00 euro	ehuneko 100,00	194.000,00 euro	120.000,00 euro

Balorazio Mahaiak aurkeztutako eskaerak aztertu ditu eta puntuazioa eman die zarpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera, proposamenek gutxieneko kalitate teknikoa dutela ziurtatzeko eta erabakitzeke zein eskaerei emango zaien laguntza eta zein geratuko diren laguntzarik gabe dagoen aurrekontua agortutakoan. Zarpigarren oinarrian ezarritako balorazio irizpideak honako hauek dira:

A) Proposatutako jardunaren kalitatea eta bideragarritasun teknikoa; 40 puntu gehienez.

B) Inbertsioaren eraginkortasuna, honela neurtuta: energia aurrezpena kostuarekiko erlazioan; 30 puntu gehienez.

C) Jarduna zenbateraino den berritzailea eta esperientzia pilotua izateko aukera duen; 10 puntu gehienez.

D) Jasagarritasuneko edo energia aurrezteko eta energia eraginkortasuna hobetzeko toki erakundeak onartutako planaren barruan egotea jarduna; 10 puntu gehienez.

E) Erakunde onuradunak 500 biztanle baino gutxiago izatea: 10 puntu gehienez.

Zenbat puntu eman den, hainbeste laguntza esleitzen da, harik eta aurrekontu zuzkidura agortu arte. Eman beharreko dirulaguntzak eta haien urteko kuoten arabera banaketa "Emandako dirulaguntzak" I. eranskinean jasotzen dira.

II. eranskinean, ukatutako dirulaguntzen zerrenda eta bakoitzaren arrazoia daude.

Hogeita bost eskaera (25) ezetsi dira gutxieneko puntuaziora heltzen ez direlako; hogeita bat eskaera (21), agortu delako aurrekontuan 2021 eta 2022 urtealdietarako erabilgarri zegoen kopurua; hiru (3) eskaera, laguntza lerro honetan jasotzen ez diren jardunetarako direlako; hiru (3) eskaera, aurkeztutako Alkatetzaren dekretua eskaera epe kanpo dagoelako; bi eskaera (2), ez delako aurkeztu Alkatetzaren dekretua, eta eskaera bat (1), ez delako ongi egiaztatzen udal plangintzaren araudiarekin egokitzen denik.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 23ko 157/2021 Erabakia oinarri hartuz, 2021 urtealdiko jardunak gauzatzeko epea azaroaren 19a zen, eta horien egiaztagirak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 26a.

Hala ere, eta deialdi honetako dirulaguntzak epe laburragoan ebatzi ezin izan direnez, egokia da 2021eko jardunak gauzatzeko epea 2021eko abenduaren 23ra arte luzatzea.

Era berean, onetsi behar da 2021eko ordainketak egiteko eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 2021eko abenduaren 30era arte luzatzea.

Horri jarraituz, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, gaurko saioan hauxe:

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroaren 2021-2022rako deialdian 2021 urtealdirako dagoen kopurua 150.000,00 euroz handitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko "60.2.05.64.00.762.90.01 Energia eraginkortasunerako dirulaguntzak 2021-2022" partidaren kontura.

Bigarrena. Ez onartzea Olabarriko Administrazio Batzarraren eskaera, ez duelako betetzen Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eskatzeko prozedura.

Hirugarrena I. eranskinean (Emandako dirulaguntzak) ageri diren erakundeei laguntza horiek ematea, dagozkien jardunak egin ditzaten. 7. oinarri arautzailean adierazten den bezalaxe, iritziko da onuradunek onartzen dutela dirulaguntza ebazpenean ezarritakoa, baldin eta ez badiote hari idatziz uko egiten 10 egun baliodunetan, ebazpenaren jakinarazpenetik aurrera. Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko "60.2.05.64.00.762.90.01 Energia eraginkortasunerako dirulaguntzak 2021-2022" partidaren kontura ematen da dirulaguntza hori (zorpekin erref.: 105-614/21.1.21 y 105-23/21.3.22).

Laugarrena. II. eranskinean agertzen diren erakundeen eskaerak ezestea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Bosgarrena. 9. oinarriaren arabera, haien emakidaren helburua den jarduera gauzatu dela frogatu, eta 157/2021 Erabakiaren IV. eranskinean azaltzen diren agiriak aurkeztu eta gero egingo da dirulaguntzen ordainketa.

Apirilaren 1eko 23/19 Foru Dekretuaren 3.8. artikulua honela dio: "Diruz lagundu daitezkeen jardunak kontratatzeke, sektore publikoko kontratuen arloan indarrean den legediak xedatutakoa bete beharko da. Kontratu txikietan (40.000 euroko balio zenbatetsitik beherakoak, obra kontratuak badira; eta 15.000 eurotik beherakoak, hornidura kontratuak edo zerbitzu kontratuak badira), erakunde onuradunak gutxienez bi eskaintza eskatu beharko dizkie lanak egiteko gai diren enpresei, eta ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena hautatzen ez bada, hautaketa hori justifikatu beharko da."

Seigarrena. Onestea 2021eko abenduaren 23ra arte luzatzea energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko 2021-2022 ekitaldirako dirulaguntzen 2021eko urtealdiko gauzatze epea.

Zazpigarrena. Onestea 2021eko abenduaren 30era arte luzatzea energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko 2021-2022 ekitaldirako dirulaguntzen 2021eko urtealdiko justifikazio agiriak aurkezteko epea.

Zortzigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Bederatzigarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Jarduneko Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. lerskina. Emandako dirulaguntzak

PUNUAZIOA	MOTA	ERAKUNDEA	JARDUNA	AURREKONTUA	ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	2021 URTEALDIA	2022 URTEALDIA
75,00	1	Amurrioko Udala	Auditoretza energetikoak egitea Amurrioko udal eraikinetan	10.000,00 euro	6.000,00 euro	6.000,00 euro	6.000,00 euro	0,00 euro
75,00	1	Haraneko Udala	Haraneko udalerria EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea moldatzea	4.235,00 euro	3.176,25 euro	3.176,25 euro	3.176,25 euro	0,00 euro
70,00	1	Kuartangoko Udala	Auditoretza energetikoak, kontsumo kontrolak eta energia jarduneko planak Kuartangon	12.645,84 euro	9.484,38 euro	6.000,00 euro	3.960,00 euro	2.040,00 euro
65,00	1	Aramaioko udala	Aramaioko udalaren Klimaren eta energia iraunkorraren aldeko Ekintza-Plana idaztea	13.310,00 euro	9.982,50 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
65,00	1	Arria-Maetzuko Udala	4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, Arria-Maetzuko udalerrian ezartzea	5.500,00 euro	4.125,00 euro	4.125,00 euro	4.125,00 euro	0,00 euro
65,00	1	Kanpezuko Udala	4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, Kanpezuko udalerrian ezartzea	6.000,00 euro	4.500,00 euro	4.500,00 euro	4.500,00 euro	0,00 euro
65,00	1	Legutioko Udala	Energia jasangarritasuneko ekintzak Legutioko udalerrian 2021-2022	26.015,00 euro	19.511,25 euro	6.000,00 euro	2.651,16 euro	3.348,84 euro
65,00	1	Urkabustaizko Udala	Klimaren eta energia jasangarriaren aldeko ekintza plana	18.137,90 euro	13.603,42 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
63,07	3	Bitorianoko AB	Bitorianon 5 eguzki luminaria jartzea	9.922,00 euro	3.968,80 euro	3.968,80 euro	3.968,80 euro	0,00 euro
62,61	3	Menagarai-Beotegiko AB	Orain dauden luminarien orde ezuzki teknologia ipintzea agiteria publikoan, Menagaraiko demioan (Araba)	33.698,50 euro	13.479,40 euro	13.479,40 euro	13.479,40 euro	0,00 euro
60,00	1	Artziniegako Udala	Energia inbentarioa, auditoretza, ziurtapena eta jarduketa plana Artziniegan	16.335,00 euro	6.000,00 euro	6.000,00 euro	3.480,00 euro	2.520,00 euro
60,00	1	Aiarako Udala	Energia inbentarioa, auditoretza, ziurtapena eta jarduketa plana Aiaran	12.000,00 euro	6.000,00 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
60,00	1	Izoriako AB	Energia inbentarioa, auditoretza, ziurtapena eta jarduketa plana	4.068,48 euro	3.051,36 euro	3.051,36 euro	0,00 euro	3.051,36 euro
60,00	1	Lantenoko AB	Energia inbentarioa, auditoretza, kalifikazioa eta jarduketa plana	6.538,50 euro	4.500,00 euro	4.500,00 euro	0,00 euro	4.500,00 euro
60,00	1	Aguraingo Udala	Energia auditoretzak Aguraingo udalerriko 6 udal eraikinetan	30.492,00 euro	22.869,00 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
60,00	1	Dulantziko Udala	Energia auditoretza udaletxerako, kultura etxerako, Dulantziko LHirako eta udal igerilekuetarako	20.328,00 euro	15.246,00 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
60,00	1	Asparrenoko Udala	Udalaren energia auditoretzak	25.410,00 euro	19.057,50 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
60,00	1	Burgeluko Udala	Energia auditoretzak Burgeluko udalerriko 2 udal eraikinetan	10.164,00 euro	7.623,00 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
60,00	1	Okondoko Udala	Energia jarduketako udal plana Okondoko Udalean	3.200,00 euro	2.400,00 euro	2.400,00 euro	0,00 euro	2.400,00 euro
58,92	4	Trespondeko AB	Trespondeko energia erkidegoaren autokontsumorako elektrindar fotovoltaikoa sortzeko sistema	93.666,20 euro	37.466,48 euro	37.466,48 euro	37.466,48 euro	0,00 euro
57,76	4	Pobesko AB	Energia berriztagarri fotovoltaikoa aprobetxatzeko instalazioa eta tresneria	80.805,03 euro	32.322,00 euro	32.322,00 euro	32.322,00 euro	0,00 euro
57,73	4	Gazteluko AB	25 kWp-ko autokontsumo instalazio fotovoltaikoa Gaztelun	26.354,38 euro	10.541,75 euro	10.541,75 euro	10.541,75 euro	0,00 euro
57,60	4	Urtateko AB	Energia berriztagarri aprobetxatzeko instalazioa eta tresneria	43.992,73 euro	17.597,09 euro	17.597,09 euro	17.597,09 euro	0,00 euro
57,57	4	Manurga AB	23 kWp-ko autokontsumo instalazio fotovoltaikoa Manurgan energia erkidegoa eratzeke	36.300,00 euro	14.520,00 euro	14.520,00 euro	0,00 euro	14.520,00 euro
57,30	4	Amaritako AB	25 kWp-ko autokontsumo instalazio fotovoltaikoa	24.622,59 euro	9.849,04 euro	9.849,04 euro	9.849,04 euro	0,00 euro
57,08	4	Erretanako AB	Energia berriztagarri fotovoltaikoa aprobetxatzeko instalazioa eta tresneria	38.971,60 euro	15.588,64 euro	15.588,64 euro	15.588,64 euro	0,00 euro
55,00	1	Bastidako Udala	70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten udal eraikinen eta argiteria publikoaren energia auditoretza	17.327,20 euro	6.000,00 euro	6.000,00 euro	0,00 euro	6.000,00 euro
55,00	1	Guardiako Udala	Guardiako udalerriko energia plana egitea	7.018,00 euro	5.263,50 euro	5.263,50 euro	5.263,50 euro	0,00 euro
52,60	4	Urizaharreko Udala	Autokontsumo instalazio fotovoltaikoa udal eraikinetan	13.900,00 euro	5.560,00 euro	5.560,00 euro	5.560,00 euro	0,00 euro

PUNTUAZIOA	MOTA	ERAKUNDEA	JARDUNA	AURREKONTUA	ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	2021 URTEALDIA	2022 URTEALDIA
51,72	4	Kripango Udala	4 kWko eguzki zentralaren instalazioa Kripango udal bulegoen autokontsumorako	7.381,06 euro	2.952,42 euro	2.952,42 euro	2.952,42 euro	0,00 euro
51,53	4	Urturiko AB	Autokontsumo instalazio partekatua Urturiko Administrazio Batzararentzat	48.217,17 euro	19.286,87 euro	19.286,87 euro	7.714,75 euro	11.572,12 euro
50,93	4	Artatza-Axkoetako AB	Artatzako energia erkidegoaren autokontsumorako elektrindar fotovoltaikoa sortzeko sistema	17.411,61 euro	6.964,64 euro	3.803,72 euro	3.803,72 euro	0,00 euro
50,78	4	Sabandoko AB**	Autokontsumo instalazio partekatua Sabandoko Administrazio Batzararentzat	39.914,27 euro	15.965,71 euro	13.965,71 euro	0,00 euro	13.965,71 euro
40,00	3	Izarrako AB***	Eguzki argikuntzako elementuen hornidura eta Izarran kokatzea	10.672,20 euro	4.268,88 euro	740,88 euro	0,00 euro	740,88 euro
40,00	7	Kanpezuko Udala	Ibilgailu elektriko bat erostea	46.844,62 euro	9.368,92 euro	9.000,00 euro	0,00 euro	9.000,00 euro
35,00	5	Dulantziko Udala****	Dulantziko kirol eta eskola-eremurako berokuntza zentrala balioesteko proiektua	7.260,00 euro	4.356,00 euro	4.341,09 euro	0,00 euro	4.341,09 euro

*Artatza-Axkoetako Administrazio Batzarari, 2021eko urtealdiko aurrekontua agortu denez, 3.803,72 euro ematen zaizkio 2021eko urtealdian, Artatzako energia erkidegoaren autokontsumorako elektrindar fotovoltaikoa sortzeko sistema"rako. Erakunde hori lehenengo tokian geratu da poltsan, eta gainerako 3.160,92 euroak emango zaizkio baldin eta hasieran urtealdi horretarako emandako dirulaguntzetan uko egiteren bat gertatzen bada.

**Sabandoko Administrazio Batzarra bigarren tokian egongo litzateke poltsan, eta 2.000,00 euro emango zaizkio autokontsumo instalazio partekaturako, baldin eta hasieran urtealdi horretarako emandako dirulaguntzetan uko egiteren bat gertatzen bada.

***Izarrako Administrazio Batzarari, 2021eko urtealdiko aurrekontua agortu denez, ez zaio diru kopururik ematen urtealdi horretan.

****Dulantziko Udalarari, 2022ko urtealdiko aurrekontua agortu denez, 4.341,09 euro ematen zaizkio 2022ko urtealdian, "Dulantziko kirol eta eskola-eremuko berokuntza zentrala balioesteko proiektu"rako. Erakunde hori lehenengo tokian geratu da poltsan, eta gainerako 14,91 euroak emango zaizkio baldin eta hasieran urtealdi horretarako emandako dirulaguntzetan uko egiteren bat gertatzen bada.

II. eranskina. Ezetsitako eskaerak

PUNTUAZIOA	MOTA	ERAKUNDEA	JARDUNA	ARRAZOIA
50,93	4	Artatza-Axkoetako AB	Artatzako energia erkidegoaren autokontsumorako elektrindar fotovoltaikoa sortzeko sistema	Aurrekontu baliabiderik ez
50,78	4	Sabandoko AB**	Autokontsumo instalazio partekatua Sabandoko Administrazio Batzarrarentzat	Aurrekontu baliabiderik ez
50,00	1	Aramaioiko udala	Aramaioiko udalerriko energia-kontsumoei buruzko diagnostiko-auditoria egitea	Aurrekontu baliabiderik ez
50,00	3	Arbuluko AB	Eguzki indarrez elikatutako kale argi bat jartzea	Aurrekontu baliabiderik ez
50,00	5	Manurga AB	Manurgako energia erkidegorako proiektu teknikoak idaztea	Aurrekontu baliabiderik ez
50,00	5	Miñaoko AB	Bideragarritasun azterlanak eta instalazio eta tresneria proiektu teknikoak idaztea, energia berriztagarri fotovoltaikoa aprobetxatzeko	Aurrekontu baliabiderik ez
50,00	5	Pobesko AB	Bideragarritasun azterlana eta instalazio eta tresneria proiektu teknikoak idaztea, energia berriztagarri fotovoltaikoa aprobetxatzeko.	Aurrekontu baliabiderik ez
50,00	5	Erretanako AB	Erretanako energia erkidegoaren bideragarritasun azterlana eta autokontsumorako elenrindar fotovoltaikoaren proiektua idaztea.	Aurrekontu baliabiderik ez
49,77	4	Tuyoko AB	Tuyoko energia erkidegoa	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
49,64	4	Artatza-Axkoetako AB	Axkoetako energia erkidegoaren autokontsumorako elektrindar fotovoltaikoa sortzeko sistema	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
49,32	4	Navarreteko AB	Autokontsumo instalazio partekatua Navarreteko Administrazio Batzarrarentzat	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
49,32	4	Kintako AB	Autokontsumo instalazio partekatua Kintako Administrazio Batzarrarentzat	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
47,21	4	Laudioko Udala	Ura berotzeko fototermia instalazioa Gardeako kiroldegian	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
47,14	4	Menagarai-Beotegiko AB	Eguzki instalazio fotovoltaikoa Mendiako HUA (Menagarai)	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
45,00	3	Kripango Udala	Eguzki energiako 2 kale argi ipintzea Kripango udalerriko hainbat tokitan	Aurrekontu baliabiderik ez
45,00	3	Samaniegoko Udala	Eguzki energiako 5 kale argi ipintzea Samaniegoko Kristoren ermitako parkean	Aurrekontu baliabiderik ez
45,00	3	Eskuernagako Udala	Eguzki energiako 4 kale argi ipintzea Eskuernagako Los Pinos kalean	Aurrekontu baliabiderik ez
42,63	4	Antoñanako AB	Autokontsumo instalazio partekatua Antoñanako Administrazio Batzarrarentzat	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
40,00	3	Izarrako AB***	Eguzki argikuntzako elementuen hornidura eta Izarran kokatzea	Aurrekontu baliabiderik ez
40,00	4	Amurrioko Udala	Elektrindarra sortzera bideratutako eguzki instalazio fotovoltaikoak ezartzeko proiektua, Amurrioko udal eraikinen autokontsumorako	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
40,00	7	Zigoitiko Udala	Udalarentzako ibilgailu elektrikoak erostea	Aurrekontu baliabiderik ez
39,43	4	Laminoriako Errege Haraneko AB	Arboroko OPko 540 mendian eguzki energia fotovoltaikoaren bidez etxeko abereak hornitzeko eguzki sistema fotovoltaikoa ordeztzea	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
37,78	4	Izarrako AB	Hornidura eta eguzki instalazio fotovoltaikoa Izarran	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
36,26	4	Ametzaga Zuiako AB	Autokontsumo instalazio fotovoltaikoa Ametzaga Zuiako HUPen	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
35,00	3	Zanbranako Udala	Eguzki argikuntzako tresneria Berganzo herriko etxe sakabanatuetan (Zembrana)	Aurrekontu baliabiderik ez
35,00	3	Arreoko AB	Argiteria publikoa eguzki energiako kale argiekin gehitzea	Aurrekontu baliabiderik ez
35,00	4	Apinaizko AB	Apinaizko errotako birgaitzea	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
35,00	4	Baranbioko AB	Aeroterminia instalazioa Baranbioko gizarte etxebizitza babestuetan	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
35,00	4	Zalduondoko Udala	Autokontsumorako eguzki plakak udalaren EUAko ur biltegian	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
35,00	4	Zalduondoko Udala	Autokontsumorako eguzki plakak udal eraikinean	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
35,00	5	Amaritako AB	Bideragarritasun azterlana eta instalazio eta tresneria proiektu teknikoak idaztea, energia berriztagarri fotovoltaikoa aprobetxatzeko.	Aurrekontu baliabiderik ez

PUNTUAZIOA	MOTA	ERAKUNDEA	JARDUNA	ARRAZOIA
35,00	5	Gazteluko AB	Gazteluko autokontsumo instalazio fotovoltaikoaren proiektua idaztea	Aurrekontu baliabiderik ez
35,00	5	Trespondeko AB	Bideragarritasun azterlana eta instalazio eta tresneria proiektu teknikoak idaztea, energia berriztagarri fotovoltaikoa aprobetxatzeko.	Aurrekontu baliabiderik ez
35,00	5	Urarteko AB	Bideragarritasun azterlana eta ingeniari-tza proiektua	Aurrekontu baliabiderik ez
35,00	5	Aguraingo Udala	Kirol eremuaren eta aterpeen optimizazioa balioesteko proiektua	Aurrekontu baliabiderik ez
35,00	5	Dulantziko Udala****	Dulantziko kirol eta eskola-eremurako berokuntza zentrala balioesteko proiektua	Aurrekontu baliabiderik ez
33,13	4	Arraia-Maeztuko Udala	Autokontsumo potentzial fotovoltaikoa aprobetxatzea Arraia-Maeztuko udalerrian	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
31,69	4	Zigoitiko Udala	Autokontsumo instalazio fotovoltaikoa udal eraikinen zerbitzurako	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
30,84	4	Urkabustaizko Udala	Eraikin publikoetarako autokontsumo partekatuko eguzki instalazio fotovoltaikoa	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
25,00	3	Añuako AB	Eguzki energiako kale argia ipintzea Goikolandako lorategian	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
25,00	3	Goiuri-Ondonako AB	Eguzki luminaria ipintzea	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
25,00	4	Barrundiako Udala	Autokontsumorako eguzki plakak Barrundiako udal eskola txikian	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
25,00	4	Iruraiz-Gaunako Udala	Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa udal instalazioetan	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
25,00	4	Donemiliagako Udala	Autokontsumorako eguzki plakak kiroldegiko udal eraikinean	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
21,33	4	Bastidako Udala	Eguzki plaka fotovoltaikoen bidez elektrindarrez hornitzeko sistema instalatzea udal eskoletan	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
20,00	4	Okondoko Udala	Haur eskolaren eraikinean EUB eta berokuntzaren energia iturria ordeztzea	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa
	—	Leciñana de la Oca-ko AB	Argiteria publikoa LEDez berritzea	Laguntza lerro honetan jasota ez dagoen jardun bat eskatzea
	—	Larreko AB	Dauden luminarien ordezkari LED jartzea	Laguntza lerro honetan jasota ez dagoen jardun bat eskatzea
	—	Goiuri-Ondonako AB	Sodio lurrunezko argien ordezkari LED jartzea	Laguntza lerro honetan jasota ez dagoen jardun bat eskatzea
	1	Arratzua-Ubarrundiako Udala	Energia auditoretza eta klimaren eta energia jasangarriaren aldeko ekintza plana	Aurkeztutako Alkatetzaren dekretua eskaera epeko kanpo dago
	1	Barrundiako Udala	Energia auditoretza udaletxerako eta Ozetako Ekinbide eraikinerako	Aurkeztutako Alkatetzaren dekretua eskaera epeko kanpo dago
	1	Zuiako Udala	Klimaren eta energia jasangarriaren aldeko ekintza plana	Ez du aurkeztu Alkatetzaren dekretua
	4	Arratzua-Ubarrundiako Udala	Eguzki instalazio fotovoltaikoa	Aurkeztutako Alkatetzaren dekretua eskaera epeko kanpo dago
	4	Zuiako Udala	Instalazio fotovoltaikoa udal araztegiaren	Ez du aurkeztu Alkatetzaren dekretua
	4	Miñaoko AB	Energia berriztagarri fotovoltaikoa aprobetxatzeko instalazioa eta tresneria	Ez du egiaztatzen udal plangintzaren araudiarekin ondo egokitzen denik

*Artatza-Axkoetako Administrazio Batzarrari, 2021eko urtealdiko aurrekontua agortu denez, 3.803,72 euro ematen zaizkio 2021eko urtealdian, Artatzako energia erkidegoaren autokontsumorako elektrindar fotovoltaikoa sortzeko sistema"rako. Erakunde hori lehenengo tokian geratu da poltsan, eta gainerako 3.160,92 euroak emango zaizkio baldin eta hasieran urtealdi horretarako emandako dirulaguntzetan uko egiteren bat gertatzen bada.

**Sabandoko Administrazio Batzarra bigarren tokian egongo litzateke poltsan, eta 2.000,00 euro emango zaizkio autokontsumo instalazio partekaturako, baldin eta hasieran urtealdi horretarako emandako dirulaguntzetan uko egiteren bat gertatzen bada.

***Izarrako Administrazio Batzarrari, 2021eko urtealdiko aurrekontua agortu denez, ez zaio diru kopururik ematen urtealdi horretan.

****Dulantziko Udalarari, 2022ko urtealdiko aurrekontua agortu denez, 4.341,09 euro ematen zaizkio 2022ko urtealdian, "Dulantziko kirol eta eskola-eremuko berokuntza zentrala balioesteko proiektu"rako. Erakunde hori lehenengo tokian geratu da poltsan, eta gainerako 14,91 euroak emango zaizkio baldin eta hasieran urtealdi horretarako emandako dirulaguntzetan uko egiteren bat gertatzen bada.